Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko urriaren 18a, osteguna — 201 — Jueves, a 18 de octubre de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

#### Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

*Gipuzkoako udalei zuzendutako diru laguntzak ematea Bizikidetza Lantzen 2018/2019 programaren barruan dauden udalerrietako proiektuak gauzatzeko. 2018ko deialdia.*

Diputatu nagusiak ondoko foru dekretua eman du 2018ko urriaren 11n:

2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluko Erabakien bitartez onartu ziren Bizikidetza Lantzen 2018/2019 programaren barruan dauden Gipuzkoako udalei zuzendutako diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2018ko deialdia (2018ko uztailaren 4ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 128 zk.).

Aipatu deialdiari dagozkion laguntzei aurre egiteko, guztira, 210.000,00 euroko gastua egiteko baimena eman da aurrekontuko 1 0140.400.461.01.02 2018 kontu sailaren kargura.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak 2018ko irailaren 17an egindako balorazio txostenarekin bat etorriz, 8. oinarrian aurreikusitako Batzorde Ebaluatzaileak ebazpen proposamena egin du eskumena duen organoak onar dezan.

Erabakiaren 9.1 oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz, diputatu nagusi honi dagokio deialdia erabakitzeko eskumena.

Bestalde, 9.2 oinarrian ezarritakoari jarraituz, deialdi honen ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitarapen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da diru laguntzei publizitatea emateko obligazioa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren 17.1 artikuluak ezarritakoaren arabera.

Horrela bada, ebaluazio batzordeak egindako ebazpen proposamenari jarraituz, diputatu nagusiak

EBATZI DU

*Lehenengo.* Ematea jarraian adierazten diren Gipuzkoako udalei zuzendutako diru laguntzak Bizikidetza Lantzen 2018/2019 programaren barruan proiektuak gauzatzeko 2018. urteko deialdian.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADO GENERAL

#### Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

*Concesión de subvenciones destinadas a ayuntamientos de Gipuzkoa, para la realización de proyectos en los municipios dentro del programa Bizikidetza Lantzen 2018/2019. Convocatoria 2018.*

El Diputado General, con fecha de 11 de octubre de 2018, ha dictado el siguiente decreto foral:

Las bases reguladoras y la convocatoria de 2018 de subvenciones destinadas a ayuntamientos de Gipuzkoa para la realización de proyectos en los municipios dentro del programa Bizikidetza Lantzen 2018/2019 fueron aprobadas mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de junio de 2018 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 128, de 4 de julio de 2018).

Para hacer frente a las subvenciones correspondientes a dicha convocatoria se ha autorizado un gasto por importe total de 210.000,00 euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0140.400.461.01.02 2018.

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, de conformidad con el informe de valoración emitido por la Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos de fecha 17 de septiembre de 2018 la Comisión Evaluadora prevista en la base 8.ª ha emitido propuesta de resolución para su aprobación por el órgano competente.

De conformidad con lo dispuesto en la base 9.ª1, corresponde a este diputado general la competencia para la resolución de la convocatoria.

Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en la base 9.ª2, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por todo ello, de acuerdo con la propuesta de la comisión evaluadora, el diputado general

RESUELVE

*Primero.* Conceder las subvenciones que se indican a continuación destinadas a ayuntamientos de Gipuzkoa para la realización de proyectos en los municipios dentro del programa Bizikidetza Lantzen 2018/2019 correspondiente a la convocatoria de 2018.

EK\CV GAO-I-2018-06956

| Kodea / Código | Udal onuradunak / Ayuntamientos beneficiarios | Lagundutako proiektuak / Proyectos subvencionados | Diru laguntza / Subvención |
|---|---|---|---|
| BL18.I.01 | HERNANIKO UDALA | Bizikidetza prozesu zabal eta integrala elkarlanetik. Hernaniko memoriari hurbilketa. | 9.616,00 |
| BL18.I.02 | TOLOSAKO UDALA | Bizikidetza eraikitze prozesu zabal eta integrala elkarrizketa eraldatzaileak | 7.744,00 |
| BL18.I.03 | AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR | Elgoibarren bizikidetza lantzen | 15.000,00 |
| BL18.I.04 | ZARAUZKO UDALA | Zarauzko memoria politikak | 15.000,00 |
| BL18.I.05 | DONOSTIAKO UDALA | Bizikidetza desberdinen arteko eraikuntza kolektiboa Donostiako herritarren elkarrizketa Foroa | 4.791,60 |
| BL18.I.06 | ERRENTERIAKO UDALA | Errenteriako Bizikidetza prozesua egonkortzen | 10.357,60 |
| BL18.I.07 | ANDOAINGO UDALA | Andoainen Bizikidetza Lantzen | 15.000,00 |
| BL18.I.08 | LEGAZPIKO UDALA | Legazpin bizikidetza lantzen | 15.000,00 |
| BL18.I.09 | ARRASATEKO UDALA | Bizikidetza erikitze prozesuaren oinarriak jartzen. Memoria partekatu baterantz | 15.000,00 |
| BL18.I.10 | VILLABONAKO UDALA | Villabonako memoria politikak | 4.809,02 |
| BL18.I.11 | DEBAKO UDALA | Debako memoria politikak | 6.866,75 |
| BL18.I.12 | SORALUZEKO UDALA | Soraluzen Bizikidetza sustatuz 2018 | 9.340,80 |
| BL18.I.13 | URRETXUKO UDALA | Urretxun Bizikidetza Lantzen | 11.228,80 |
| BL18.I.14 | URNIETAKO UDALA | Urnietako Bizikidetza Lantzen | 14.379,00 |
| BL18.I.15 | ORIOKO UDALA | Orioko memoria politikak | 7.358,32 |
| BL18.I.17 | BERGARAKO UDALA | Bergaran Bizikidetza Lantzen | 10.357,60 |
| BL18.I.18 | HONDARRIBIKO UDALA | Hondarribiko memoria politikak | 8.036,85 |
| BL18.I.19 | BEASAINGO UDALA | Beasainen Bizikidetza Lantzen | 13.310,00 |
| BL18.I.20 | LASARTE-ORIAKO UDALA | Lasarte-Oriako Bizikidetza Proiektua | 14.520,00 |
| GUZTIRA / TOTAL | | | 207.716,34 |

*Bigarren.* Xedatzea foru dekretu honen aurreko atalean adierazten diren kopuruak zerrendatzen diren udalen alde, 1 0140.400.461.01.02 2018 kontu sailaren kargura.

*Hirugarren.* Ezestea jarraian adierazitako eskaerak aipatzen diren arrazoiengatik:

*Segundo.* Disponer con cargo a la partida 1 0140.400.461.01.02 2018 el importe que se indica a favor de cada uno de los ayuntamientos relacionados en el apartado anterior del presente decreto foral.

*Tercero.* Desestimar las solicitudes que se indican a continuación por los motivos que se señalan:

| Kodea / Código | Udala / Ayuntamiento | Proiektua / Proyecto | Ezestearen arrazoia / Razón de desestimación |
|---|---|---|---|
| BL18.I.16 | ANTZUOLAKO UDALA | Oroimena josten Antzuolan: 1960 - 2011 | Derrigorrezko ardatza ez du lantzen (1.3 oinarria) / No trabaja el eje de la convocatoria (base 1.3) |

*Laugarren.* Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Foru dekretu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete foru dekretu honen aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko diputatu nagusi honi, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko

*Cuarto.* Ordenar la publicación del presente decreto foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra el mismo recurso contencioso–administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea re-

EK\CV GAO-I-2018-06956

ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2018ko urriaren 11.—Ander Arzelus Aramendi, Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako burua.

(6956)

suelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 11 de octubre de 2018.—El jefe de la Secretaría del Área del Diputado General, Ander Arzelus Aramendi.

(6956)

EK\CV GAO-I-2018-06956